

1988-X-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian egin du Euskaltzaindiak euskaltzain osoen hileroko bere batzarrea. Goizeko hamar terdian bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu eta J. San Martin euskaltzainak, J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea barne dela.

J. M. Barandiaran, X. Diharce, E. Erkiaga, A. M. Labayen, P. Zabaleta eta A. Zavala jaunek ezin etorria adierazi dute, hala nola I. Sarasolak azken orduan.

Iraileko batzar-agiria onartu da.

Eskuarteko gaiak

Iragarritako lehen gaia J. Gorostiaga euskaltzain zenaren hutsarte betetzeko bozketa da. Iritsi ez den I. Sarasola etorriko delakoan, eguerdiko hamabietara atzeratu da bozketa.

Orixenaren omenez Uitzin egitekoa den azaroko batzarreaz mintzatu da J. L. Lizundia. Bertako alkatea ikusten izana dela J. M. Satrustegirekin aste honetan bertan, aditzera eman du. Barnetegitako antolatu nahi den Orixeneko berritatzeko lanak ez dira hasi. Kontzejuko etxeak bileretako leku aproposak badi-tu. Ostatuan, bestalde, hamar bat logela badira. Alkatearen ustez, igandea da omenaldia egiteko egunik egokiena.

Lexikologi Jardunaldien eta euskaltzain osoen bilerarako egutegia zehaztea da une honetan egiteko nagusia. Bizpahiru aukera aztertu ondoren, Jardunaldiak eta euskaltzain osoen hileroko batzarrea larunbatean, azaroak 26, egitea erabaki da. Igandean goizeko hamaiketan izango da meza eta hamabietan omenaldia batzar irekia.

P. Altunaren ustez laburregia da eskatu zaion gai zabalarentzat Uitziko omenaldian eskaintzen zaion denbora eta, bere aldetik, uzteko prest dago. J. M. Lekuonak dio hobe dela bere txostena baztertzea. Azkenean, P. Altunaren txandari denbora gehiago emanaz hiru txostenak aurkeztea erabaki da.

P. Goenagak gutun baten bidez aditzera ematen duenez, J. Butron eta J. de Pedroren *Euskal Gramatika Praktikoa* hein handi batean Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak orain arte argitaratuaren laburpen soiltzat har daiteke, eta Euskaltzaindiak erabakiren bat hartzea bidezko iruditzen zaio.

Salaburuk bere aldetik liburuan jasotako atal berdintsuenen azalpena egin du. Salgai dauden aleen bada-ezpadako bahiketa agindua lehen-bait-lehen eman beharra aipatu da. Arazoa legegizon trebe baten esku uztea erabaki da. Gramatika batzordeko burua eta buruordea arduratuko dira lehen urratsak ematez.

J. M. Satrustegi Nafarroako ordezkariak esan du, aurreko batzarrean aipatu zen bezala dagokien arduradunei emana diela Eremu Mistoko herri izenen zerrenda. A. Colin Lehendakariatzako kontseilariarekin elkarrizketa eskatua du datorren azaroaren 11an, ahal bada, aurkezpen ofiziala egiteko. E. Knörr Toponimia batzordeburua, J. M. Jimeno Jurio lanaren arduraduna eta L. Villasante euskaltzainburua joango dira Euskaltzaindiaren izenean.

Bilboko egoitzari buruz azken albisteak eman ditu J. L. Lizundia bulego arduradunak. Arbietoko gelak utzi beharrean aurkitzen gara Diputazioaren aginduz. Plaza Barriko egoitza egokitu arte egoteko, Elkano kalean dagoen barne bat eskaini digute. Baina Erribera kalean, Azkue Bibliotekaren alboan hutsik dagoenez barne bat, hori eskatu zaie behin-behineko bulego tokitzat.

J. San Martin diruzainak J. J. Zearretarekin Madrilera egindako bidaiaren berri eman du. Memoria emateaz bestalde, "Educación y Ciencia" Ministeritzatik dirulaguntza hitzeman zieten "Azkue Bibliotekako" informaketa eta mikrofilmaketa tresnariarendako. J. A. Aranak, behar bada, Madrilera itzuliren bat egin beharko duela aditzera eman du.

Gorostiagaren ordezkia

J. Gorostiaga zenaren euskaltzain aulkirako bi hautagai izan dira aurkeztuak: J. A. Arana-Martija eta X. Kintana jaunak. L. Villasantek bozketari dagozkion Arautegiko 25. artikulua eta Barne Erregelaren 41, 42 eta 43 garrena, irakurri ditu.

Batzar-agiri honen hasieran aipatutako hamasei euskaltzainak bertan daudelarik, beste sei euskaltzaindikidek eman dute izkribuz bozketako ahala. I. Sarasolak ezin izan duela Barcelonatik etorri, aditzera eman du azken orduan telefonoz. Hogeita bi hautesle dira, beraz, eta hamabi botu behar dira gehiengo nagusia lortzeko.

Ordezkoaren izena eman duten euskaltzainak hauek dira: J. M. Barandiaranek, E. Knörri; X. Diharce, E. Erkiaga eta A. M. Labayenek euskaltzainburuari; P. Zabaletak, P. Charrittoni, eta A. Zavalak, E. Larreri.

Bozketako lehen itzulian 13 txartel izan ditu J. A. Arana-Martijak, eta beste bederatzia jaso ditu X. Kintanak. J. A. Arana Martija da, beraz, euskaltzain berria. Horrela jakineraziko dio idazkariak.

Izendapenak

Euskal olerkien “Felipe Arrese-Beitia” sarirako, J. L. Davant, A. Irigoyen eta J. M. Lekuona izendatu dira epai-mahaikide.

“Toribio Altzaga” antzerki sarien mahairako J. L. Goikoetxea, J. San Martin eta Tx. Peillen izendatu dira. P. Urkizuk ordezkatu du, izendatutakoren batek huts egiten badu.

Argitalpenak

Nafarroako ordezkaria den J. M. Satrustegik azken egunetako zenbait jesteren berri eman du. R. Badiola, argitalpenen eragilearen eskariz, *Cendea de Oltza* izeneko liburukiaren argitaratzeko dirulaguntza eskatu die Nafarroako agintariei. Begi onez ikusi dute eta egun hauetako batez erantzun zehatza ematekotan gelditu dira.

Jimeno Jurioren Toponimiako bigarren liburuari eskainitako diru laguntza ere jaso dela, esan du.

J. San Martinek, bere aldetik, Joan de Beriain Utergako apaizaren *Doctrina Cristiana* (1626) berargitaratzeko urratsen bat emateko eskatua zion Nafarroako ordezkariari, eta honek Nafarroako Kultura Kontseilukoa denez, argitalpenen batzordean hitzez egin zuen eskaria. Oso ongi hartua izan zen faksimilean egiteko asmoa, eta idazle honen biziko berriak oraintxe aurkitu berriak baitira eta FLV aldizkariaren azken zenbakian emanak, berargitalpenari hitzaurre on bat egitea proposatu zuten. Batzarreak onartu du hitzaurre hori egiteko xedea.

Bere jesteren berri eman ondoren, J. M. Satrustegik Argitalpenen batzordearen esku uzten du jarraipenaren ardura.

Orotariko Euskal Hiztegiari buruz egindako bileraren berri eman du J. San Martinek. Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak, Euskaltzaindiak eta EJIeko ardura-dunek hartu zuten parte. Hasierako tirabiraxoren bat gora-behera, arazo teknikoetan finkatu zen elkarrizketa. Borondate ona ikusi dela, dio, eta oztopoak bideratzeko gogoia ere bai. Bigarren zenbakian zuzendu nahi dira sistema berriak sorturiko akatsak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi,
Idazkaria

2. batzarrea

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1988.eko urriaren 28an, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere 2. batzarrea. Arratsaldeko 4etan bildu dira, goizeko batzar agirian agertzen direnez gain, beste hauek: J. A. Arana, J. M.^a Aranalde, X. Arbelbide, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J. M.^a Etxebarria eta J. Garmendia Larrañaga, urgazleak.

a) *Goizeko bilkuraren berri*. J. M.^a Satrustegi idazkariak egiten du goizeko euskaltzainen bilkuran tratatutako gaien azalpena.

b) *Argitalpen Batzordearen bilkura*. L. Villasante euskaltzainburuaren aginduz, R. Badiola batzorde eragileak ematen du, goizean batzordeak onartutako argitalpenen programakuntza. Hara hor laburpena: *Euskera* 1988, 2 agerkarian argitaratuko diren txosten eta agiriak eta bestalde, 1989. urterako argitarapen programaketa nolakoa izanen den eta zein lan dauden prest argitaratzeko.

d) Jose Migel Barandiaran jaunak “Gentilei buruz adierazgarri batzuk” deitutako txostena beste batetan eman ahal izango duela, adierazi du Euskaltzainburuak.

e) “Euskal lexiko etnografiaz” izeneko txostena irakurri du Juan Garmendia Larrañaga euskaltzain urgazle jaunak. Oraintsu berak egindako dotoradutzako tesiari buruzkoa da, hain zuzen. Aipamen azpimarragarrienak hauek lirateke, hots: hiztegi berezia dela, etnografi/etnologi alor jakin batzutan finkatzen dena. Liburuak zazpi zati dauzkala eta honetaz hainbat xehetasun eskaini ditu, alegia: “Iñauteria”, “Baserría Artzantza”, “Otarregintza, Ihizkoa eta Zumezkoa”, “Zurgintza” eta “Eriotza”.

Batzartuek zenbait itaun eta ohar eginez, amaitutzat eman da batzarrea.